

GIL 65 Arrikruzeko leizea



Arrikruzeko leizeko espeleotema batzuk, argizatuta.

Kokapena

- **Koordenatu geografikoak:**

Lat.: 42° 59' 49,35" N

Long.: 2° 25' 40,61" W

- **UTM koordenatuak:**

X: 546.629,39 m

Y: 4.760.645,05 m



Nola iritsi

Oñatin, Arantzazuko santutegira doan bidea hartu, eta, erdibidean, eskuinera desbideratu, Jaturabe arroila eta Araotz auzorantz. Haitzuloetarako sarrera seinalatua dago errepidean.



"Ibai"-jatorriko sedimentuen pilaketa galeriaren bazterretan.

GILaren deskribapen laburra

Gesaltza-Arrikrutz sistema karstikoaren parte da Arrikrutz; elkarri lotutako galeria-sistema bat da, 14 km luze, eta bata bestearen gainean dauden 6 solairu karstiko ditu. Aizkorri mendigunean dago, itsas mailatik 400 m ingurura, eta Gipuzkoako barrunberik handiena eta publikoarentzat irekita dagoen bakarra da.

Behe Kretazeoko kareharrietan garatutako barrunbe bat da (154-96 milioi urte ditu). Bisitan, 53. galeria ikusten da, barrunbearen ekialdeko sektorean. Galeria fosil bat da, eta Aldaola ibaiaren antzinako hobia izan zen. Sekzio handiko galeriak ditu, estalagmita- eta kolada-konkrezio interesgarriak hornituak (*flowstones*). 390 m luzeko galerian zehar, 55 m egiten da behera, batez beste 9°-ko maldan. Ur-disoluzioaren ezaugarri asko ikusten dira han (jatorri freatikoko sabai higituak, *scallop*ak edo ur-kolpeak ...), bai eta antzina galeria zeharkatzen zuen ibaiak utzitako metakin detritiko siliziklastikoak eta zenbait forma (estalaktitak, estalagmitak, koladak, zutabeak) eta adinetako (Pleistozeno-Holozenokoak) karbonato-prezipitatuak ere.

Aurrikuntza arkeologiko eta paleontologikoak ere garrantzitsuak dira Arrikrutzen (leize-hartz baten eskeleto osoa, panteren eskeleto partzialak eta buru-hezurak, eta hartzen aztarnategia).

Behatzeko punturik onena


In situ. Leize turistikoa da.



Leizea egokituta dago ikastetxeek eta publiko orokorrak ikusteko.



Haitzuloan aurkitutako leize-hartzaren eskeleto berreraikia.



Arrikutzeko sistemaren mapa-planoa.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 81, GIL 82.
- **Gaiari dagokionez:** GIL 61, GIL 64, GIL 66, GIL 67, GIL 68.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa			●	
	Tektoniko/Estrukturala				
	Estratigrafikoa				
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala:					
Oharrak:	Zenbait galeria-mailaz osatutako leize turistikoa. Mailetako batzuk aktibo daude.				

Bibliografia espezifikoa

- <http://www.oinati.eu/turismo/arrikruz-las-cuevas-de-onati>
- <http://www.eve.es/publicaciones/cartografia/Mapas/88-III.pdf>
- Karaitza, 11 (2002/2003): *"Estudio climático en la galería 53 de la cueva de Arrikruz (Sistema Gesaltza – Arrikruz – Jaturabe)"*. <http://es.calameo.com/read/000050832399a5263918e>
- Iñigo Arrizabalagaga (1992): *"Introducción al estudio de los depósitos Cuaternarios en el complejo kárstico de Arrikruz (Oñati, Guipúzcoa)"*. Cuadernos de sección. Historia 20. 55-82. <http://www.euskomedia.org/PDFAnlt/vasconia/vas20/20055082.pdf>
- Arrizabalaga, A., Iriarte, M.J (2002): *"Sondeo arqueológico en la boca de la Galería 53. Cueva de Arrikruz (Oñati, Gipuzkoa)"*. Munibe, 54, 117–124.
- ALOÑA MENDI, (G.E. 1974). *Trabajos sobre el karst de SW de Guipuzcoa*. Oñati. Biblioteca Municipal arg., 101. or.
- ALOÑA MENDI ESPELEOLOGIA TALDEA. (1996). *"Gesaltza Arrikruz Multzo Karstikoa"*. Karaitza, 5. UEV/EEE Donostia, 1.933. or.